**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2019ko UZTAILAK 17 / 17 - JULIO - 2019**

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2019/07/17

**HASIERA / INICIO:** 18:00etan

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EH BILDU-DURANGO):**
Alkatea, Dona Ima Garrastatxu Urbaneja andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**
**(EH BILDU-DURANGO):**
2. Alkateordea, Don Iker Urkiza Quilez jauna
3. Alkateordea, Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Dona Ane Abanzabalegi Areitio andrea
Dona Mariam Bilbatua Perez andrea
Don Juan Antonio Bueno Moreno jauna
Dona Garazi Errazti Silloniz andrea

**HERRIAREN ESKUBIDEA-ELKARREKIN PODEMOS-INDEPENDIENTEAK (HE-EP-I)**
1. Alkateordea, Don Julian Rios Santiago jauna
Dona Neskutz Rodr guez Ormazabal andrea
Don Jorge Varela Dorrio jauna
Dona Mar a Onate Erenaga andrea

**EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV)**
Dona Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andrea
Dona Sara Oceja Salazar andrea
Don Ager Sardui Azkoaga jauna
Dona Josune Escota Bisbal andrea
Don Jon Sergio Atxotegi jauna
Dona Joana de Irala Bizkarra andrea
Dona Malen Urkullu Arieta-Araunabena andrea
Dona Ainhoa Ortueta Etxebarria andrea

**EUSKAL SOZIALISTAK-SOCIALISTAS VASCOS**
Dona Jesica Ruiz Perez andrea
Don Fernando Castillo Rodr guez jauna

**KONTU-HARTZAILE / INTERVENTOR**
Don Jokin Palacio Perez jauna

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramon Sorarrain Tolosa jauna

Alkateak batzarrari hasiera eman ondoren, 18:00ak direnean, bilera honetako gaizerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesion por la Alcalde-Presidenta, siendo las 18:00 horas, se paso a tratar los temas que componen el Orden del D a de la presente sesion y que son los siguientes:

**BAT.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

**UNO.- DACION DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERES:**

* Alkatea **Garrastatxu Urbaneja andreak (EH-Bildu-Durango)**: Alkatetzako dekretuak Idazkaritza Orokorrean daude, informatikako aplikazioan ere badaude eskuragarri.

* Alcalde **Sra. Garrastatxu Urbaneja (EH Bildu-Durango)**: Los decretos de Alcald a estan en la Secretar a General y estan, asimismo, disponibles en la aplicacion informatica.

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Izendapen eta dekretu batzuen berri ematera noa.

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: Voy a dar a conocer varios nombramientos y decretos.

Alde batetik, uztailaren 8an izandako batzorde informatiboetako bilkuretako presidentziak hautatu ziren eta batzorde informatibo bakoitzeko presidentziak honako hauek dira:

- ✓ Antolakuntzako Batzorde Informatiboa: Ima Garrastatxu Urbaneja andrea (EH Bildu-Durango).
- ✓ Herritarrak Batzorde Informatiboa: Julian R os Santiago jauna (HE-EP-I).
- ✓ Lurralde Batzorde Informatiboa: Aritz Bravo Zubillaga jauna (EH Bildu-Durango).

Bestalde, egun bereko kontseiluetan, hautatu egin ziren Erakunde Autonomoetako kontseiluetako presidentziak:

- ✓ Durango Kirolak: Ane Abanzabalegi Areitio andrea (EH Bildu-Durango).
- ✓ Astarloa Kulturgintza: Ane Abanzabalegi Areitio andrea (EH Bildu-Durango).
- ✓ "Bartolome Ertzilla" Musika Eskola: Jorge Varela Dorrio jauna (HE-EP-I).
- ✓ Durangoko Euskaltegia: Neskutz Rodriguez Ormazabal andrea (HE-EP-I).

Por un lado, el 8 de julio, se eligieron las presidencias de las sesiones de las comisiones informativas y paso a anunciar cuales son las presidencias de cada comision informativa:

- ✓ Comision Informativa de Organizacion: Dona Ima Garrastatxu Urbaneja (EH Bildu-Durango).
- ✓ Comision Informativa de Ciudadan a: Don Julian R os Santiago (HE-EP-I).
- ✓ Comision Informativa de Territorio: Don Aritz Bravo Zubillaga (EH Bildu-Durango).

Por otro lado, se eligieron en los consejos del mismo d a las presidencias de los consejos de los organismos autonomos:

- ✓ Durango Kirolak: Dona Ane Abanzabalegi Areitio (EH Bildu-Durango).
- ✓ Astarloa Kulturgintza: Dona Ane Abanzabalegi Areitio (EH Bildu-Durango).
- ✓ Escuela de Musica "Bartolome Ertzilla": Don Jorge Varela Dorrio (HE-EP-I).
- ✓ Euskaltegi Municipal: Dona Neskutz Rodriguez Ormazabal (HE-EP-I).

- ✓ Uztailaren 15ean, 1514. alkatetza dekretuz, jardunaldi osoko lanaldia onartu zen Julian R os Santiagorentzat (HE-EP-I).
- ✓ Data bereko 1512. dekretuz, jardunaldi osoko liberazioa onartu zen Iker Urkiza Quilez jaunarentzat (EH Bildu-Durango).
- ✓ 1513. dekretuz, jardunaldi osoko liberazioa onartu zen Aritz Bravo Zubillaga jaunaren alde (EH Bildu-Durango).
- ✓ Data bereko 1515. alkatetza dekretuz jardunaldi osoko liberazioa onartu zen Jorge Varela Dorrio jaunarentzat (HE-EP-I).
- ✓ Data bereko 1517. dekretuz, jardunaldi osoko liberazioa onartu zen Ima Garrastatxu Urbaneja andrearentzat (EH Bildu-Durango).
- ✓ Uztailaren 17an, 1528. dekretuz, jardunaldi osoko liberazioa onartu zen Jesica Ruiz Perez andrearentzat (ES-SV).

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

**BI.- DURANGOKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN FORMULAZIOAREN HASIERA ONARTZEA, HORRELA BADAGOKIO. (LURRALDEA BATZORDEAREN IRIZPENA, 2019KO UZTAILAREN 11KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Lurralde Batzordearen irizpena 2019ko uztailaren 11koa, eta honako hau dioena:

"*Ikusirik Hairi-antolamenduko Plan Orokorraren formulazio-espedientea*

*Kontutan hartuta Udal Arkitektoak 2019ko uztailaren 8ko txostena.*

*Kontutan hartuta Hirigintza arloko Aholkulari Juridikoak eta Udal Idazkariak sinatutako 2019ko uztailaren 8ko txostena.*

- ✓ El 15 de julio, a traves del Decreto de Alcald a 1514, se aprobo la jornada a tiempo completo para Don Julian R os Santiago (HE-EP-I).
- ✓ A traves del Decreto 1512 de la misma fecha, se aprobo la liberacion a jornada completa para Don Iker Urkiza Quilez (EH Bildu-Durango).
- ✓ A traves del Decreto 1513, se aprobo la liberacion a jornada completa para Don Aritz Bravo Zubillaga (EH Bildu-Durango).
- ✓ A traves del Decreto de Alcald a 1515, se aprobo la liberacion a jornada completa para Don Jorge Varela Dorrio (HE-EP-I).
- ✓ A traves del Decreto de Alcald a 1517 de la misma fecha, se aprobo la liberacion a jornada completa para Dona Ima Garrastatxu Urbaneja (EH Bildu-Durango).
- ✓ El 17 de julio, a traves del Decreto 1528, se aprobo la liberacion a jornada completa para Dona Jesica Ruiz Perez (ES-SV).

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**DOS.- APROBACION, SI PROCEDE, DE INICIO DE FORMULACION DEL PLAN GENERAL DE ORDENACION URBANA DE DURANGO. (DICTAMINADO POR LA COMISION INFORMATIVA DE TERRITORIO DE 11 DE JULIO DE 2019).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comision Informativa de Territorio, de 11 de Julio de 2019, del tenor literal siguiente:

"*Visto el expediente incoado relativo a la formulacion del Plan General de Ordenacion Urbana.*

*Atendido el informe del Arquitecto Jefe de fecha 8 de julio de 2019.*

*Atendido el informe conjunto del Asesor Jur dico de Urbanismo y del Secretario de 8 de julio de 2019.*

***IRIZPENA***

*EH Bildu-Durango (3) eta HE-EP-I (2) udal taldeen ordezkarien aldeko botoarekin, eta EAJ-PNV (3) eta ES-SV (1) udal taldeen ordezkariaren abstentzioaz, honako proposamen hau luzatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari.*

*EBAZPENA*

1. *Durangoko Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren formulazioaren hasiera onartzea.*

2. *HAPO-aren formulazioaren onespenari lotutako Herritarren parte-hartzea programa onestea."*

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Uztailaren 11ko Lurralde batzorde informatiboan irizpena onartu zen; irizpen honekin Durangoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren formulazioaren hasiera onartzeko eskabidea egiten dio plenoari eta, era berean, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren formulazioaren onespenari lotutako herritarren parte-hartze programa onestea ere bai.

Planeamenduko Ordezko Arauen 1.2.3.6. artikuluak zortzi urtetako epea zehazten du egiturazko antolamendu urbanistikoa berraztertzeko.

Era berean, 2/2006 legearen 2. xedapen iragankorrak, ekainaren 30eko 2/2014 legearen bitartez egindako aldaketaren ondoren, honako hau ezartzen du: "«*Nolanahi ere, plan orokor eta arau subsidiario guztiak egokitu egin beharko zaizkie lege honen zehaztapenei, eta egokitzapenok behin betiko onartuko dira gehienez ere hamabost urteko epean*».

Aipaturiko aginduak lege berriarekin bat letorkeen plan orokorraren egokitzapen osoa egitera behartzen du esandako epean; izan ere, egun, egiturazko antolamendua ez baitago harekin bat, onespena eta lege autonomikoaren aurrekoa baita.

Hau da, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren formulazioaren hasiera bi arrazoigatik proposatzen da:

***DICTAMEN***

*Con el voto favorable de los representantes de EH Bildu-Durango (3), HE-EP-I (2) y la abstencion de los representantes de EAJ-PNV (3) y ES-SV (1), se propone al Ayuntamiento Pleno la adopcion del siguiente.*

*ACUERDO:*

1. *Acordar el inicio de formulacion del Plan General de Ordenacion Urbana de Durango.*

2. *Aprobar el Programa de Participacion Ciudadana que se adjunta al acuerdo de inicio de formulacion del PGOU."*

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: Se aprobo el dictamen en la sesion del 11 de julio de la Comision Informativa de Territorio; con este dictamen, se solicita al Pleno la aprobacion del inicio de formulacion del Plan General de Ordenacion Urbana de Durango y se solicita, al mismo tiempo, que se apruebe el programa de participacion ciudadana adherido a la aprobacion de la formulacion del Plan General de Ordenacion Urbana.

El art culo 1.2.3.6 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento establece un plazo de ocho anos para la revision de la ordenacion urban stica estructural.

Asimismo, la disposicion transitoria numero 2 de la Ley 2/2006, una vez realizada la modificacion a traves de la Ley 2/2014 del 30 de junio, establece lo siguiente: "«*De todos modos, todos los planes generales y normas subsidiarias deberan ser adaptados a las determinaciones de esta ley, con aprobacion definitiva en el plazo maximo de quince anos*».

La mencionada orden obliga a la adaptacion completa del plan general en el plazo indicado, para que cumpla la nueva ley; de hecho, a d a de hoy, la ordenacion estructural no esta adaptada a dicha ley, ya que es anterior a la aprobacion y a la ley autonomica.

Es decir, se propone el inicio de la formulacion del Plan General de Ordenacion Urban stica a causa de dos motivos:

1. Indarrean dagoen lurralde-eredua era integral batean aztertu ahal izateko, planeamendu orokorrak agindutakoarekin bat.

2. Ordezko arauak 2/2006 Legearen erabakietara moldatzea, horretarako emandako gehienezko epeak betez eta legearen aginduak konplituz.

Beraz, plan orokor berriaren formulazio espedienteari hasiera eman behar zaio. Beronen tramitazio eta onespena 2/2006 Legearen IV. Kapituluan arautzen da, 84-110 artikuluetan.

Aipatutako legearen 90. artikuluaren arabera Udalari dagokio plan orokorra formulatzea. Era berean, plan orokorren behin betiko onespena ere 7.000 biztanle baino gehiago dituzten udalei dagokie.

Prozedura, oso laburtuta, honako hau da:

1. Formulazioaren hasiera eta herritarrek parte hartzeko programaren onespena (108.artikulua).

2. Helburuak, alternatibak eta proposamenak barneratuko lituzkeen abantzearen lanketa eta onespena.

3. 2 hilabetez jendaurreko erakusketa.

4. Plan orokorra burutu ahal izateko irizpide eta helburuen onespena.

5. Plan orokorraren erredakzioa eta hasierako onespena.

6. Hilabeteko jendaurreko erakusketa epea.

7. Izandako alegazioen ebazpena eta behin-behineko onespena.

8. Euskadiko Lurralde-Antolamendu Batzordeari bidaltzea, txostena egin dezan.

9. Behin betiko onespena.

10. Argitalpena.

1. Para analizar de forma integral el modelo de territorio que esta en vigor, cumpliendo con lo dispuesto por el Planeamiento General.

2. Para adaptar las normas subsidiarias segun las disposiciones de la Ley 2/2006, cumpliendo tanto los plazos maximos establecidos, como los mandatos de la ley.

Por lo tanto, se debe iniciar el expediente para la formulacion del nuevo Plan General. Su tramitacion y aprobacion se regula en los art culos 84-110 del cap tulo IV de la Ley 2/2006.

En virtud del art culo 90 de la citada ley, corresponde al Ayuntamiento la formulacion del Plan General. De la misma manera, la aprobacion definitiva de los planes generales corresponde a los Ayuntamientos de los municipios con mas de 7.000 habitantes.

El procedimiento, explicado muy brevemente, es el siguiente:

1. Inicio de la formulacion y aprobacion del programa para la participacion ciudadana (art culo 108).

2. Desarrollo y aprobacion de los objetivos, alternativas y los avances que integrar a la propuesta.

3. Exposicion publica durante 2 meses.

4. Aprobacion de criterios y objetivos para realizar el Plan General.

5. Redaccion del Plan General y su aprobacion inicial.

6. Exposicion publica durante el plazo de un mes.

7. Resoluciones de las alegaciones presentadas y la aprobacion definitiva.

8. Env o a la Comision de Ordenacion del Territorio del Pa s Vasco.

9. Aprobacion definitiva.

10. Publicacion.

Aldi berean eta batera, 21/2013 Legean aurreikusitako Ohiko Ingurumen-ebaluazio estrategikoa izapidetu behar da. Dokumentu honek, alde batetik, planaren ingurumen-efektuak ebaluatzen ditu, aurrez ikusteko edo efektuak arintzeko; eta beste alde batetik, plan-proposamenean ingurune-aspektuak eta biztanleriaren parte hartzea bermatu egiten ditu bi baliabiderekin:

a) Herritarren parte-hartze programa. Programa hau aurreko legealdian adostutakoa da.

b) Plangintzako Aholku Batzordea.

**Onespenerako organo eskuduna:**

Egiturazko antolamendu-planak behin betikoz onartzeko eskumena 7.000 biztanle baino gehiagoko udalei dagokienez, Durangoko Udalak dauka eskumena hasierako onespena, behin-behineko onespena eta behin betiko onespena emateko, baita hasierako onespena eman ahal izateko beharrezkoak liratekeen beste edozein egintzatarako ere.

Plangintza orokorrari hasierako onarpena ematea, eta hirigintza-legedian aurreikusitako antolamenduko planen eta gainerako tresnen gaineko udal izapideen amaiera onartzea Korporazioaren Udalbatzari dagokio, apirilaren 2ko Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluaren arabera.

Azkenik, egiturazko antolamenduko tresna urbanistikoa da, eta ondorioz behin betiko onespeneko akordioak, korporazioko kideen gehiengo osoa behar du, apirilaren 2ko Toki-araubidearen oinarriak arautzen 7/1985 legearen 47.2.ll artikuluaren arabera.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzea ematen dira:

* **Ruiz Perez andreak (ES-SV)**: Prozesu luze, konplexu eta beharrezko bati ekin diogu gaur. Guri ilusioa pizten digun prozesua da eta 2030eko Durangorako bidean jarriko gaituena. Garai berrietako Durango; ibilgailu elektrikoak izango dituena, energia aldetik eraginkorrak diren

Al mismo tiempo, se debe tramitar la evaluacion ambiental estrategica ordinaria, prevista en la Ley 21/2013. Este documento, evalua, por una parte, los efectos ambientales del plan, para su prevision y paliar los efectos; y por otra parte, garantiza los aspectos ambientales y la participacion ciudadana en la propuesta, a traves de dos recursos:

a) El programa para la participacion ciudadana. Es el programa aprobado en la legislatura anterior.

b) Consejo Asesor de Planificacion.

**Organo competente para la aprobacion:**

Siendo la competencia para la aprobacion definitiva de los Planes de Ordenacion estructurales de los Ayuntamientos de mas de 7.000 habitantes, el Ayuntamiento de Durango posee la competencia para su aprobacion inicial, aprobacion provisional y aprobacion definitiva, as como para cualquier acto que sea necesario para la aprobacion inicial.

Corresponde al pleno de la corporacion municipal la aprobacion inicial de la Planificacion General y la aprobacion del final de las tramitaciones municipales sobre los planes de ordenacion y el resto de recursos previstos en la ley de urbanismo, segun el art culo 22.2.c) de la Ley 7/1985, del 2 de abril, que regula las bases del Regimen Local.

Por ultimo, es un instrumento urban stico de ordenacion estructural y por lo tanto, el acuerdo para la aprobacion definitiva necesita el apoyo de la mayor a absoluta de los miembros de la corporacion, segun el art culo 47.2.ll de la Ley 7/1985, del 2 de abril, que regula las bases del Regimen Local.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejala **Sra. Ruiz Perez (ES-SV)**: Hoy iniciamos un proceso largo, complicado, necesario y, en nuestro caso, un proceso que sera ilusionante y que nos llevara al Durango del 2030. Un Durango de nuevos tiempos; de

etxebizitzak izango dituena, baina etorkizuneko Durango horrek, aldi berean, adingabe gutxiago eta adineko gehiago izango ditu, etxebizitza bakoitzeko pertsona gutxiago, merkataritzari eta aisialdiari lotutako beste ohitura batzuk, bisitari gehiago eta abar.

Hori guztia eta beste gauza asko ere aintzat hartuta, proiektu honi gaurko begiekin ez, baizik gure seme-alaben begiekin begiratzea gomendatzen dugu. Ez dago esan beharrik berandu ekin diogula prozesuari, adostasun faltak eta ezintasun aritmetikoak egoera honetara ekarri gaituela; baina orain ez dagokigu errudunak bilatzea, une honetako inguruabarrak beste batzuk baitira. Gaur egingo diogun prozesu honek erakundeen eta herritarren artean ahalik eta adostasun handiena izatea ekarri behar du. Prozesu honekin batera, gainera, herritarrek parte hartzeko programa bat ere izango dugu; adostuta dago jada programa hori.

Bidezkoa da esatea, abian gaur jarriko dugun arren, aurretik ere lan egin dela. Ezarri ditugu 2030erako nahi dugun Durangori lotutako lehen hausnarketei buruzko oinarriak, 2015ean eginiko parte-hartze prozesu bat dugu, garatuta daude zarataren mapa, sare berdea eta mugikortasun-plana.

Gobernu-Taldeak onar dezake haiek aurkezten duten proposamena. Guk esan nahi diegu hor izango garela ekarpenak egiteko, uzten diguten lekuan. Lagundu egingo dugu adostasunak lortzen, denon helburua baita gauzak ahal den ondoen egitea, baina betiere ordezkari gaituen erakundeak eskatzen duen zorroztasuna eta ardura abiapuntutzat hartuta.

Guk gaur prozesuari ekitea ekarriko duen proposamenaren aldeko botoa emango dugu. Eta horrela, herritar, elkarte eta kolektibo guztiak partaidetza-prozesu honetan parte hartzera animatu nahi ditugu, uste baitugu denon artean Durango hobea, sozialagoa eta jasangarriagoa egingo dugula.

* **Elkoroiribe Zenikaonandia andreak (EAJ-PNV)**: EAJren aldetik, alde bozkatuko dugu. Uste dugu beharrezkoa dela Hirigintza Antolamendurako Plan

veh culos electricos, un Durango de viviendas con eficiencia energetica, pero tambien un Durango en el que nos encontremos con menos menores, mas mayores, un Durango con menos personas por vivienda, con otros habitos comerciales y de ocio, con mas visitantes...

Por todo eso y mucho mas, recomendamos no mirar este proyecto con los ojos de hoy, sino con los ojos de nuestros hijas e hijos. No hace falta decir que ya vamos tarde en el proceso, que la falta de consensos y la imposibilidad aritmetica nos ha tra do a esta situacion; pero no nos toca ahora buscar culpables, porque las circunstancias ahora mismo son distintas. El proceso que hoy vamos a iniciar debe de tener como resultado el mayor consenso posible entre instituciones y ciudadan a. Ademas, este proceso va acompanado por un programa de participacion ciudadana que ya esta consensuado.

Es justo decir que aunque hoy se pone en marcha como tal, ya hay un trabajo previo realizado; estan las bases sobre las primeras reflexiones de Durango que queremos para el 2030, tenemos un proceso participativo realizado durante el 2015, esta desarrollado el mapa del ruido, la malla verde y el plan de movilidad.

El Equipo de Gobierno puede aprobar la propuesta que ellos presenten. Nosotros les queremos decir que cuenten con nosotros para aportar donde se nos permita. Ayudaremos en los consensos, porque el objetivo de todos es hacer lo mejor que podamos, pero siempre desde el rigor y la responsabilidad que nos obliga la institucion que representamos.

Nosotros hoy vamos a votar a favor de la propuesta que conlleva el inicio de este proceso. Con ello lo que queremos es animar a todos los ciudadanos, asociaciones y colectivos a participar en este proceso participativo, porque creemos que entre todas y todos haremos un Durango mejor, mas social y mas sostenible.

* Concejala **Sra. Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV)**: Por parte del PNV, votaremos a favor. Creemos que es necesario el inicio formal de la tramitacion del Plan General para la

Orokorraren tramitazioari hasiera formala ematea. Hala ere, zehaztasun batzuk eman nahi ditut.

Esaten ari nintzen, egokia iruditzen zaigula Durangoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra formulatzen hasteari onespen formala ematea, hirigintzako araudia indarrean diren legearen xedapenetara egokitzeko. Eta onespen formala, diot, orain arte plan orokorra formalizatzearen aurreko lanak egin direlako, plan horretan txertatzeko; hala nola diagnostiko teknikoa, laguntza eta aholku zerbitzuak kontratatzea eta ingurumen-ebaluazio estrategikoa 2018an, zarataren mapa, sare berdea, mugikortasun-plana...

Bestalde, funtsezkoa iruditzen zait nabarmentzea ahalik eta adostasun handiena bilduko duen plan orokor handiena idazteko eta onartzeko beharra; adostasuna, bai udaleko politikarien artean, bai, jakina, herritarren artean. Alderdi hori Arkitektoak ere nabarmendu zuen informazio-batzordean, bai baitzekien berebiziko garrantzia duela plan orokor honek Durangoren etorkizunerako. Plan Orokorra da hirigintzako plangintzarako tresna nagusia eta bereizi eta zehaztu egiten ditu lurzorua erabiltzeko moduak eta lurzoruaren jabeen eskubideak, eta betebeharrak ere ezartzen ditu; baita hirigintzako jardueren kontrol administratiboa ere.

Tresna honek emango digu aukera nahi dugun udalerri-eredua definitzeko. Udalerri jasangarria nahi dugu, batetik betera oinez edo bizikletaz joateko aukera emango duena, gure umeak bertan jolasteko modukoa, gure umeak bizi ahal izateko behar adina eraikin izango duena, denontzako lekua izango duena eta jasangarritasun-irizpideetan oinarrituta eta gure seme-alaben etorkizunean pentsatuz aurrera egiteko aukera emango duena. Tresnak honek emango digu aukera, azken finean, lortu nahi dugun udalerri-eredua definitzeko eta, horregatik, funtsezkoa da ahalik eta adostasun handiena lortzea, herritar guztiei behar adina informazio eskaintzea eta eragile sozioekonomikoen eta herritarren partaidetza handia lortzea.

Hori horrela, Informazio Batzordean herritarrek parte hartzeko programa bat aurkeztu zen Plan Orokor hau izapidetzeko eta EAJkook zenbait al-

Ordenacion Urban stica. Quisiera, sin embargo, especificar varias cuestiones.

Como dec amos, consideramos oportuna la aprobacion formal del inicio de la formulacion del Plan General de Ordenacion Urbana de Durango con el objeto de adaptar la normativa urban stica actual a las determinaciones de la legalidad vigente. Y digo formal porque hasta ahora se han realizado trabajos previos a la formalizacion del plan general a fin de ser incluidos en el mismo como son el diagnostico tecnico, la contratacion de servicios de asistencia y consultor a y evaluacion ambiental estrategica en 2018, el mapa del ruido, la malla verde, el plan de movilidad...

Y por otra parte, me parece fundamental subrayar la necesidad de redactar y aprobar un plan general que tenga el maximo consenso posible, tanto en el ambito pol tico municipal como, por supuesto, en la ciudadan a en general. Este aspecto fue recalcado tambien por el propio Arquitecto en la comision informativa consciente de la suma importancia que tiene este plan general en el futuro de Durango. El plan general es la principal herramienta de planeamiento urban stico que distingue y concreta las formas de utilizacion del suelo y fija tambien los derechos y deberes de los propietarios de ese suelo y el control administrativo de la actividad urban stica.

Es el instrumento que nos permitira definir el modelo de municipio que queremos, municipio sostenible en el que podamos movernos a pie o en bicicleta, en el que nuestros ninos y ninas puedan jugar, en el que haya las edificaciones necesarias para que nuestros ninos y ninas puedan vivir, en el que haya espacio para todos y en el que se pueda avanzar con criterios de sostenibilidad y pensando en el futuro nuestro y de nuestros hijos e hijas. Es el que nos permitira, en definitiva, definir el modelo de municipio que queremos y, por ello, es crucial alcanzar el maximo consenso, ofrecer una extensa informacion a toda la ciudadan a y lograr tambien una amplia participacion de los agentes socio-economicos y de la ciudadan a.

En este sentido, en la comision informativa se presento un programa de participacion ciudadana para la tramitacion de este plan general

daketa aurkeztu genituen programa horretarako. Gobernu-Taldeak adierazi zuen ados zegoela aldaketa horiekin, baina ez dugu, oraindik, akta jaso eta ez da osoko bilkurako dokumentazioan txertatu partaidetza-programa hori nola geldituko den. Beraz, sartu, mesedez, partaidetza-programari egiteko eskatutako aldaketak, garrantzitsua iruditzen baitzaigu hori egitea.

Alderdi politikoen iritziarekin publierreportajea egiteari eta argitaratzeari lotuta, eskatu zen, adierazteko, alderdi politiko bakoitzak informazioa eman zezakeela bere iritziari buruz. Horrez gain, eskatu zen, bi komunikabide jakin adierazi beharrean, erreportajea argitaratzeko bere garaian aukeratu ziren komunikabideak aukeratzeko erabilitako irizpide zehatzak adierazteko. Eskatu zen, gainera, beste pertsona eta eragile batzuk ere sartzea programarako aurrez ikusita zeuden elkarrizketa pertsonalizatuak egiteko, zenbait elkarte eta sektore seinalatzen baitziren, baina beste batzuk falta ziren; adibidez, hezkuntza-sektorea, merkataritza, turismoa..., eta berariaz aipatzen ziren partaidetza-foroetan ohikoak diren pertsonen elkarrizketak eta gure iritziz, garrantzitsua da beste pertsona batzuk ere, pixkanaka, hor sartzea.

Gustatuko litzaiguke jakitea ea aldaketa horiek txertatu diren eta bestalde, jakin nahi genuke ea noizko dagoen aurreikusita lehen proposamena, zer kokapen eskatuko duen bulego teknikoaren aldetik, zer kostu izango duten giza baliabideek eta baliabide ekonomikoek eta abar.

Azkenik, aipatu nahi du Lurralde Batzordera eramandako plan orokorraren formulazioari buruzko irizpenak hiru puntuko akordio bat aipatzen zuela eta ez osoko bilkurara ekarritakoa, bi puntukoa, alegia. Hala ere, batzordearen saioa izan baino lehen erabaki zen puntuetako bat kentzea eta jaso dugun azalpen bakarra izan da denbora gehiago behar zela hausnarketa egiteko.

Edozein kasutan, hasieran esan dudan bezala, guretzat oso garrantzitsua da plan orokor honi hasiera ematea, Durangoren etorkizuna hor marraztu ahal izango dugu, eta ahalik eta adostasun handiena bilatu behar izango dugu bai alderdi poli-

sobre el que EAJ-PNV presentamos varias modificaciones. El Equipo de Gobierno indico estar de acuerdo con dichas modificaciones, pero no hemos recibido todav a el acta y tampoco se ha incorporado a la documentacion del pleno como quedar a ese programa de participacion por lo que s pedir a, por favor, que se incluyan esas modificaciones solicitadas al programa de participacion porque nos parece importante.

En cuanto a la realizacion y publicacion del publirreportaje con el posicionamiento de los grupos pol ticos, se solicito que se indicara que cada partido pol tico pudiera aportar informacion sobre su postura; se solicito tambien que en vez de indicar dos medios de comunicacion espec ficos se indicaran los criterios objetivos por los cuales, en su momento, se decidieron dichos medios en los que se iba a publicar dicho reportaje, se solicito tambien poder incorporar otras personas y agentes para la realizacion de entrevistas personalizadas previstas en ese programa dado que se senalaban una serie de asociaciones y sectores pero faltaba, por ejemplo, el sector educativo, el comercio, el turismo..., y se indicaban expresamente entrevistas a personas habituales en foros de participacion cuando nosotros entendemos que es importante que se puedan ir incorporando otras personas.

Nos gustar a saber si estas modificaciones han sido, efectivamente, incorporadas y, por otra parte, nos gustar a saber para cuando esta prevista la primera propuesta, que ubicacion requerira por parte de la oficina tecnica, cual sera el coste en cuanto a recursos humanos como economicos...

Por ultimo, quisiera comentar que el dictamen relativo a la formulacion del plan general que se llevo a la Comision de Territorio contemplaba un acuerdo de tres puntos en vez de los dos que se han presentado a pleno; sin embargo, se decidio eliminar uno antes de la celebracion de dicha comision sin que se nos haya dado mas explicacion de que hac a falta mas tiempo para poder reflexionar.

De todos modos, tal y como he dicho al principio, consideramos muy importante el inicio de este Plan General. Es ah donde podremos dibujar el futuro de Durango y tendremos que buscar el maximo consenso posible, tanto por

tikoen aldetik, bai eragileen aldetik eta nola ez, herritarren aldetik. Horregatik guk alde bozkatuko dugu eta espero dugu gure aldetik egindako proposamenak kontuan izatea.

* **Varela Dorrio jaunak (HE-EP-I)**: Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiogu Idazkari jaunari, gai honi buruz emandako azalpenagatik.

2005ean onartutako Arau Subsidiarioek gobernatutako egoera batean gaude. Arau horiek onartu eta handik 8 urtera berraztertu behar ziren eta jada 14 urte igaro direnez, uste dugu nahiko premiazkoa dela hirigintzako plangintza hau berrikusten hastea.

Gaur egun, dokumentuaren izena Hiri Antolamenduko Plan Orokorra da. 3-4 urte beharko ditugu dokumentu hori idazteko eta horregatik, garrantzitsua da hastea.

Gaur hasi den prozesu honek ilusioa pizten digu eta abian jarri nahi genuen. Prozesu honek definituko du etorkizunean nahi dugun Durango eta gure ustez, azken lau urteetan babestu dugun horretan guztian oinarrituta egon behar du: Durango jasangarria, ingurumena errespetatuko duena; behar bezala ordenatutako Durango, herritarren partaidetza oinarrizko izango duena eta herritarrek erabakiko dute zer hirigintza-eredu nahi duten. Horregatik, hasiera da gaurkoa, baina prozesu osoa eta luzea izango dela espero dugu, eta Durangoko herritar guztiak bidelagun izatea ere bai.

Galdetu diguzue ea zergatik kendu den puntu bat. Uste dut batzordean esan genuela, batzorde hartara eramango genuen proposamena zela. Gure ustez, proposamen hau gainerako udal taldeekin eztabaidatu behar zen eta horregatik kendu genuen, gaur onartzeko, eztabaidarako denbora izango baitugu. Eta aurrerago, zabalduko dugu prozesua udal talde guztion artean adostasuna lortzeko.

* 3. Alkateordea **Bravo Zubillaga jaunak (EH Bildu-Durango)**: Lehenengo eta behin, eskerrik asko Idazkariari emandako azalpenengatik.

parte de los partidos pol ticos, como por parte de los agentes y, como no, de los ciudadanos. Por ello, nosotros votaremos a favor y esperamos que nuestras propuestas se tengan en cuenta.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (HE-EP-I)**: Primero, queremos agradecer al senor Secretario la explicacion que nos ha dado sobre este tema.

Estamos en una situacion que esta regido por un documento que se llama Normas Subsidiarias que se aprobo en 2005, unas normas que se ten an que haber revisado 8 anos despues, y dado que han pasado 14 anos creemos que es bastante urgente comenzar con esta revision del planeamiento urban stico.

Hoy en d a el nombre del documento ha pasado a ser el Plan General de Ordenacion Urbana, es un documento que tardaremos entre 3-4 anos en redactar y por eso es importante empezar con ello.

El proceso que se inicia hoy es un proceso ilusionante que quer amos poner en marcha, es un proceso que definira el futuro Durango que queremos, y creemos que debe de estar basado en todo lo que hemos defendido a lo largo de los ultimos cuatro anos: un Durango sostenible, que respete el medio-ambiente, un Durango que este ordenado debidamente, en que la participacion ciudadana sea fundamental y que la ciudadan a decida que modelo urban stico quiere; y por eso traemos hoy el inicio pero esperamos que sea un proceso completo, largo y acompanado de toda la ciudadan a de Durango.

En cuanto a la pregunta de por que se retiraba un punto, creo que dijimos en la comision que entend amos que era una propuesta que bamos a llevar a esa comision, entendimos que esta propuesta deb a de ser debatida con el resto de grupos municipales y por eso la retirabamos para la aprobacion hoy, dado que vamos a tener tiempo de debatirla, y, mas adelante, abrir amos el proceso para que entre todos los grupos municipales lleguemos a un acuerdo.

* 3º Tnte. de Alcalde **Sr. Bravo Zubillaga (EH Bildu-Durango)**: Para empezar, gracias al Secretario, por las explicaciones.

Gaurko honetan hona dakarguna Hiri Antolamenduko Plan Orokorra da, horren formulazioaren hasiera-onarpena.

Plan hauek lantzean behin berrizten diren planak dira eta 1971ean bat egin zen, bigarrena 1995ean, 2005ean beste bat eta 14 urte beranduago hasiko gara azkenarekin. Plan hauek luze joaten dira eta esan den moduan, 3-4 urte ez dizkigu inork kenduko; esan daiteke legegintzaldi honetako proiektu garrantzitsu bat izango dela hau.

Proiektu honek hiru hanka dauzka: alde batetik, alde teknikoa, udaletxeko bulego teknikoko langileek egingo duten lana da, lan itzela, txosten asko eta gauza asko jorratu behar izango dute; bigarrena hanka politikoa izango da; udalbatza honetako alderdi guztiek honetan parte hartzeko ia obligazioa, daukagu, beraz, parte hartzeko aukera beti egongo da ahalik eta adostasun handienera heltzeko; azkeneko hanka herritarrena izango litzateke, durangar guztien hanka.

Logika honetan,  gaurdanik ekartzen dugu herritarren parte-hartze programa bat batzordean, oso gainetik, azaldu zena, eta bertan esan zen moduan, hau tresna bat da, tresna bizia izango da, baina parte-hartzerako minimoak ezarriko dituen tresna bat da.

EAJko Bozeramaileari erantzuteko, akta jasotzearenaren inguruan esan behar diot akta teknikari batek jaso behar duela eta epeak errespetatu behar ditugula. Bestalde, esan dute EAJk ekarpenak egin zituela, eta horrela da, ekarpen horiek aktan jaso ziren eta eginda dagoenean bertan islatuta egongo dira ekarpen horiek.

Beste puntu batean irizpide objektiboena komentatu da; batzordean eman ziren komunikabide horiek aukeratzeko irizpide objektiboak, beraz, akta jasotzerakoan bertan izango dituzue eta, azkenik, batzordean galdetu eta erantzun egin zen ea zergatik kendu zen ebazpen horretan puntu bat, hiru izan beharrean bi ekarri dira gaur ere.

Lo que traemos hoy aqu es el Plan General de Ordenacion Urbana, la aprobacion inicial para la formulacion de dicho Plan.

Estos son planes que se renuevan de vez en cuando. Se elaboro uno en 1971, el segundo en 1995, otro en el 2005 y despues de 14 anos daremos comienzo al ultimo. Estos planes se suelen alargar y tal y como se ha mencionado aqu , nadie nos va a quitar 3-4 anos; se puede decir que sera uno de los proyectos importantes de esta legislatura.

Este proyecto tiene tres patas: por un lado, el lado tecnico, el trabajo que realizaran los trabajadores de la oficina tecnica municipal, un trabajo enorme, ya que tendran que elaborar numerosos informes y demas; la segunda pata es la pol tica, ya que todos los partidos de esta corporacion tenemos casi la obligacion de participar en este trabajo, por lo tanto, siempre habra la oportunidad de participar, para lograr el maximo consenso posible; y la ultima pata es la de los ciudadanos, la pata de todos los durangueses.

En esa logica, traemos desde hoy un programa de participacion ciudadana que se explico en la comision de forma superficial, y tal y como se menciono en la comision, es una herramienta, sera una herramienta viva, pero es una herramienta que establecera los m nimos para la participacion.

Para responder a la Portavoz del PNV, en lo que se refiere al acta, esta la debe recibir un tecnico y debemos respetar los plazos. Por otro lado, se ha dicho que el PNV hizo aportaciones y as es, dichas aportaciones se recogieron en el acta y cuando la misma este lista, las aportaciones estaran reflejadas en ella.

En otro punto se ha comentado el tema de criterios objetivos; los criterios objetivos para elegir dichos medios de comunicacion se especificaron en la comision, por lo tanto, cuando reciban el acta, all los tendran, y por ultimo, se pregunto y se respondio en la comision por que se elimino un punto de la resolucion y hoy, en vez de tres, se han tra do dos.

Prozesu hau luzea izango denez, lasaitasunez hartu beharko dugu eta adostasuna topatzeko asmoz kendu da puntu hori, atzeratu egin da. Puntu hori aurrerantzean ere ekarriko dugu eta denon artean landuko dugu.

Ya que el proceso sera largo, debemos abordarlo con calma y ese punto se ha eliminado para buscar consenso; se ha pospuesto. Se traera ese punto mas adelante y lo trataremos entre todos.

* **Elkoroiribe Zenikaonandia andreak (EAJ-PNV)**: Kontua ez da akta jasotzea edo ez jasotzea; kontua da pasa den astean batzordea izan genuela eta gaur erabaki bat hartzen dela, eta erabaki hori hartzerako orduan guretzat garrantzitsuak dira gauza horiek nola gelditzen diren jakitea.

* Concejala **Sra. Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV)**: No se trata de recibir o no el acta, se trata de que la semana pasada tuvimos la reunion de la comision y hoy se toma una decision, y al tomar esa decision, quisieramos saber como se han quedado esas cuestiones que consideramos importantes.

Hemen ikusten dudanez, onartzen dena ez da bakarrik izango tramitazio honi hasiera ematea, baizik eta parte-hartze programa bera ere onartzea. Edozein kasutan ere baietz bozkatuko dugu konfiantza puntu bat emanda, kontuan izanda programa horretan egindako ekarpenak egongo direla.

Tal y como veo, lo que se aprobara aqu no es solamente dar inicio a la tramitacion, sino tambien la aprobacion del programa de participacion. De todos modos, votaremos a favor otorgando un punto de confianza y teniendo en cuenta que el programa contara con las aportaciones realizadas.

* 3. Alkateordea **Bravo Zubillaga jaunak (EH Bildu-Durango)**: Ekarpenak jasoko dira. Esan dugun moduan, parte-hartze programa hau minimoen programa da bakarrik, zabalik dagoen programa bat da, bizia izatea espero dugu. Baina eskertzen da konfiantza puntu hori.

* 3º Tnte. de Alcalde **Sr. Bravo Zubillaga (EH Bildu-Durango)**: Se recogeran las aportaciones. Tal y como hemos explicado, este programa de participacion es, solamente, un programa de m nimos, es un programa que esta abierto, y esperamos que sea un programa vivo. Pero se agradece ese punto de confianza.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez onartzen du:

1. Durangoko Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren formulazioaren hasiera onartzea.
2. HAPO-aren formulazioaren onespenari lotutako Herritarren parte-hartzea programa onestea.

PREVIA votacion realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda:

1. Acordar el inicio de formulacion del Plan General de Ordenacion Urbana de Durango.
2. Aprobar el Programa de Participacion Ciudadana que se adjunta al acuerdo de inicio de formulacion del PGOU.

**HIRU.- BIDEZKOA BALITZ, 13/2019 MC KREDITU ALDARAZPEN ESPEDIENTEA ONARTZEA. (ANTOLAKETA BATZORDEAREN IRIZPENA, 2019KO UZTAILAREN 11KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Antolaketa Batzordearen irizpena 2019ko uztailaren 11koa, eta honako hau dioena:

*"Ikusirik 13/2019/MC kreditu-aldarazpen espedientea ikusita.*

*Kontutan hartuta Udal Kontuhartzailetzak 2019ko uztailaren 8ko txostena.*

*Kontutan hartuta Udal Kontuhartzailetzak Aurrekontu-egonkortasuneko legea betetzeari eta jasangarritasunari buruzko 2019ko uztailaren 8ko txostenak*

*IRIZPENA*

*EH Bildu-Durango (3) eta HE-EP-I (2) udal taldeen ordezkarien aldeko botoarekin, eta EAJ-PNV (3) eta ES-SV (1) udal taldeen ordezkariaren abstentzioaz, honako proposamen hau luzatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari.*

*EBAZPENA*

*Ondoren zehazten den 13/2019/MC kreditu-aldarazpen espedientea behin behineko onespena ematea:*

**TRES.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACION DE CREDITO Nº 13/2019. (DICTAMINADO POR LA COMISION INFORMATIVA DE ORGANIZACION DE 11 DE JULIO DE 2019).**

